



**[ b ]**

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

588. zkia.  
XIV. urtea  
2006ko urriaren 20a

Jose Urrutia, maketa egilea

# Maketagintza, pazientzia handiko artea

## ALTZOLA



- 3 logelako etxebizitzak terraza zabalekin.
- Duplex-ak. • Toki lasai eta loretsua.
- Lehen urteko aseguruia dohainik.

## ERROSARIO

- Azkenengo apartamentuak 168.300 €-tik hasita.



## ALBOKUAK INMOBILIARIA

Errosario, 12 - Tel.: 943 74 06 73 / 656 79 71 69  
E-posta: albokuak@euskalnet.net

## BIGARREN ESKUKO ETXEBIZITZAK

### URASANDI

- Duplexa
- Saloia, 3 logela, 2 komun, sukaldea eta trasteroa
- Eguzkitsua
- Egoera ezin hobea



### URASANDI

- Saloia, komuna, aseoa 4 logela eta sukaldea
- Ganbara eta garajea
- Prezio honean!!

### SANTA ANA

- Saloia, 2 logela, sukaldea, komuna
- Igogailua
- Erreforma egin behar da

### ERDIALDEAN

- Saloia-sukaldea, bainua, 3 logela eta trasteroa
- Egoera oso ona

### ERRETXINDI

- Saloia, bainua, 3 logela, sukaldea eta komedorea
- Ganbara.
- Dena kanpoaldera.

### APALATEGI (EIBAR)

- Saloia, sukaldea, komuna, 2 logela eta trasteroa
- 35 m<sup>2</sup> etxe inguruan
- Dena kanpoaldea
- Eguzkitsua
- Egoera oso ona



TERTULIAK programa (2006-2007)

## Euskaldunak behar dira euskaldun berriekin tertulian jarduteko



“Gero eta euskaldun gehiago izan nahi badugu, euskaldun berriei laguntzea tokatzen zaigu euskaldunoi. Gure ardura ere bada.”

Izaskun

“Pozgarria da Tertuliak programari esker euskaldun berriak zelan *soltatzen* diren ikustea.

Animatu, astean ordubete baino ez da-eta.”

Arantxa



Urritik ekainera, astean ordubetez. Hiru-lau laguneko talde txikietan. Izena emateko azken eguna: **urriak 27**

Informazioa:



ELGOIBARKO IZARRA  
(943 74 16 26)



AEK Euskaltea  
(943 74 13 32)



UDAL EUSKALTEGIA  
(943 74 27 31)

Babeslea:



Elgoibarko Udala



IMANOL LARRAÑAGA

Harrituta laga ninduen, Uxue. Zer esan asmatu ezinik. Haurdun zegoen, eta sa-belean zuen umetxoa mutila izatea nahi zuela aitortu zidan batere erreparorik gabe. Ez zuela alabatxorik eduki nahi. Nesken etorkizuna mutilena baino ilunagoa ikusten zuela, arriskutsuagoa. Zoriontsu izateko aukera gutxiagorekin.

*Nola liteke ama batek alabatxorik nahi ez izatea?! pentsatu nuen nire artean. Gogorra begitandu zitzaidan. Eta emakumea aspaldian ikusi ez badut ere, sarri etortzen zait haren irudia begien aurrera. Sarriegi, gauza onerako. Emakumearen aurpegia ikusi nuen, adibidez, Estatu Batuetako bost neskatxoak buruan tiro bana zutela ikasgelako homaren kontra imajinatu nituenean. Neskatxoak zirelako hil zituen gizon batek. Edo, emakumearen berbak gogoratu nituen, baita ere, senarrarengandik ihesi gorputza sutan zuela neska batek balkoiatik behera salto egin zuela entzun nuenean irratian. Emaztea zelako eman zion su senarrak.*

Horrelakoak ikusi eta entzundakoan hartzen dute zentzua hasiera batean zentzugabeak ziruditen berbek. Ulertezina ulertzen hasten zara, zoritxarrez. Lagun batek ez du aintzat hartzen bizia ematen digutenen bizitza. Eta iturburu zaindu ezean, ibairik handiena ere sikatu egin daiteke.

Damutu al zara sekula zure amak alabatxoa izan zuelako, Uxue?

## ZOZOAK BELEARI...

«Alabatxorik ez zuela eduki nahi esan zidan»

IMANOL

«Ez ditut emakume horren hitzak ulertzen»

UXUE



UXUE ALBERDI

Hori galdera, Txino! Nola damutuko nintzen, ba?

Emakumezko jaiotzen eta nire emakume begiekin begiratzen diot munduari, halako begiradarik existitzen bada, behinik behin. Eta egia esango dizut, aipatu dituzun kontu beldurgarri horiek irakurri ondoren ere, ez ditut emakume horren hitzak ulertzen. Ezta sinistu ere. Emakumeok, oraindik orain, muga handiagotak ditugula gizartearen? Ados. Baina tamalez denontzako mugak daude hemen!

Nori ez zaio mugarik jartzen? Emakumei, homosexualei, lodiei, itsusiei, beltzei, ijitoei, euskaldunei, zaharrei, gazteei, gaxoiei, iraultzaileei, etorkinei, artistei, autonomoei, pobreei... Bihar arte egon gintezke zerrenda luzatzen.

Erraztasuna al da, ba, kontua? Eroto-atasuna? Nik ez nuke bizitzan dena erraz joango zaion seme-alabarik nahi! Horretarako nahikoa da kanario bat eta alpiste poltsa bat erostearrekin.

Gainera, eta arazoak arazo, sentimendu tristea eta pobrea iruditzen zait errukia. Ez naiz emakumeoz erruki, ezta gutxiago ere! Sexu ahulik ez dago, nazionalitate txarrik, adin eskasik, hizkuntza pobrerik edo bokazio okerrik ez dagoen bezala.

Sortu gintuenaren sabelari baliorik ez zaiola ematen diozu. Nola, ba, Txino? Guztiok geure zilborrari begira bagauda?



EGIN AMETS ETA ESPIRITUZ LIBRE IZANGO ZARA;  
EGIN BORROKA ETA BIZITZAN LIBRE IZANGO ZARA

Ernesto Che Guevara



## Benantziorentzat txaloak?

Herriko zenbait familiak eskerrak eta txaloak ematen dizkio Benantziori berriz ere kanpaiak gauzez dilindan jartzeagatik. Azken aurreko BARRENen argitaratu zuen Benantziok bere iritzia, eta eskutan ez daukadan arren, gogoratzen naiz lerokada txukuna zela, logikoa, arrazoizkoa eta abar luze bat. Baina orain, diodan bezala, atzera egin du presio batzuk izan direla - eta. Nola deitu portaera honi?

Egin dezagun gogoeta. Zer diote presio horiek? Nola neur dezakete kanpaiak gau osoan martxan edukitzearen hotsak eragozten duten loa? Zer da aipatzen duten "erreferentzia" hori?

Gaur mundu guztiak daukagu ordularia, etxe bakoitzean lau edo bost, gauzez ikustekoak ere bai eta zoritxarreko iratzargailu edo despertadorea ez da inon falta. Ordua jakinaraztea ez da, bistan denez, gaur egunean kanpaiak duten zeregin, besteren bat izango da bere funtzioa, akaso gizarte laiko batean eliza hor dagoela jakinaraztea. Ez dakit.

Kanpaiak nondik eta nola entzuten diren alde handia dago. Hurbiletik eta zuzenean edo urrutitik eta zeharka entzunda, alde nabarmena dago dezibeliotan. Kontua da, ordea, lo egiteko eta deskantsurako eskubidea merezi dugula hemen denok eta bistan da, gaueroko 259 kanpaikadek

pitzatu egiten duela eskubide hori. Horixe baita presio horiek aipatu duten "erreferentzia", 259 kanpaikada gauero. Hainbeste behar al da? Izatekotan, ordu gutxiago mututzea proposa liteke, edo urte batean dilindan eta hurrengoan isilik edukitzea kanpaiak, denok kontuan hartzen gaituen erabaki salomoniko bat hartze aldera... Elgoibar lehendik ere bada aski zaratatsua: autoak, zabor biltzaileak, feriara bezperan ekartzen diren abereak, taberneta atariak... Zergatik ez kanpaiak behintzat gauzez isilarazi? Arazo hau konpontzea ez da besteak bezain zaila.

Denbora asko ez dela, ertzainek mutil bat eraman ei zuten eskuburdinak jari eta atxilotuta. Antza, musika altuegi edukitzen zuen gauzez. Guk hura ez genuen entzuten, ez zigun batere molestatzen, baina ulertzen dugu bateren bati jasanezina egiten zitzaioela zarata. Kanpaiek ere ez gaituzte denok berdin kaltetzen, batzuek bai eta besteak ez, batzuk gehiago eta besteak gutxiago edo bat ere ez. Kanpaiek denok errespetatu behar bagaituzte, berdintasun erabaki bat behar litzateke eta beste herrietan arazoa nola konpondu duten ikusi. Agian hortik etor daiteke konponbidea batzuk eta besteok, denok, egin ahal izan dezagun lo, bake-bakean.

F. E.

## Bert egoera larrian; elkartasuna

Gutun honen bidez Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak bere kezka azaltzeaz gain, larritasunezko dei bat luzatu nahi dizue Fernan Bert-en herrikide guztioi.

Femanek datorren azaroaren 8an bukatuko du frantziar justiziak ezarritako zigorra, baina litekeena da bere kartzelaldia hor ez bukatzea. Izan ere, mendeku eta xantxia politika anker baten bultzatzaile diren bi estatuen isilpeko akordio baten arabera, ETako presoek Frantzian duten kondena bete ostean, Espainiako mugara kanporatzen dituzte eta hemen, espainiar polizia esku utzi.

Hori dela-eta, horren aurka protesta egiteko duen tresna gutxietariko bat (baina oso ondorio larriak eragin ahal dizkiona) erabiltzen ari da gure herrikide maitea: gose greba. Pasa den igandean hasi zuen baraualdia eta entrega eguneraino luzatzea espero da.

Honen aurrean ezin gaitetze etxean lasai geratu. Askok eta asko gara/zarete Fernan etxean nahi dugunak/duzuenak, bere ongietorria noiz iritsiko zain denbora luzea daramagunak/daramazuenak. Baina oraintxetik hasi behar gara egun hori prestatzen. Horregatik Femani elkartasuna adierazteko burutuko diren ekintzetara azaltzeko deia egiten dizuegu guztioi. Uneak merezi duelako, Femanek merezi duelako.

ELGOIBARKO AMNISTIAREN ALDEKO  
MUGIMENDUA

E-POSTA

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR

943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: 943 74 37 04 • E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZALEA** Jaione Unanue **KOLABORATZALEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otano, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Uruzuno **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.580 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



## KEXAK

- **Urasandi auzoan ez dago umeekin kontuz ibiltzeko adierazten duen kartelik:** "Ikastetxe bat dagoen ingurune guztietan jartzen dute umeekin kontuz ibiltzeko kartela, baina Urasandi osoan ez dago horrelako kartelik, eta bi Ikastetxe daude, Pilar eta Herri Eskola. Gaur egun auto asko ibiltzen da toki guztietan eta umeak dabilzan inguruneetan honelako kartelak jartzea komeni dela iruditzen zaigu. Ezbeharren bat gertatu aurretik, ikastetxe bat dagoela adierazten duen seinalea jartzeko eskatu nahi diogu Udalari. Eskerrik asko".

- **Emuaranbide kalean kotxe mordoa egoten da espaloi gainean aparkatuta:** "Gure herrian aparkatzeko arazo handia dago, baina gidariek ez dituzte oinezkoak errespetatzen. Ermuaranbide kalean kotxe mordoa egoten da espaloi gainean aparkatuta eta San Lorentzora pasiatzera joaten garenok ezin izaten dugu pasatu. Errepidera atera behar izaten gara, eta hori oso arriskutsua da. Irtenbidea ez da erraza, baina udaltzainek zorrotzago jokatu behar dutela iruditzen zaigu. Beste toki batzuetan jartzen dituzte isunak, baina Ermuaranbide kalera oso gutxi armatzen dira."



## TXALOAK



- **Elgoibar Ikastolako ikasle eta langileek eskerrak eman nahi dizkiote Mari Tere Iralagoitiari urte guzti hauetan eginiko lanagatik:** "16 urtez Elgoibar Ikastolan lanean jardun ondoren, urriaren 11n jubilatu zen Mari Tere Iralagoitia. Hemeng langile eta ikasle ugari gogoratuko dugu jangelan eramandako martxa eta Ikastolako txokoak txukun mantentzeko egiten zuen ahalegina. Joan zen astean egin genion agurra, eta erabat hunkigarria izan zen. Eskerrak eman nahi dizkiogu bihotz-bihotzez urte guzti hauetan erakutsi duen jarreragatik".

- **Txalo bero bat Pilar Ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoei:** Pilarika Eguna bikain atera zen. Eskerrik asko guztioi ikastetxe honenkin aurrera jarraitzeagatik.

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

943 74 41 12



Elgoibarko  
Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILEA  
Hizkuntza Politikaren Saileko burua



Gipuzkoako  
Foru Aldundia





## URRUZUNOREN Luma

### Dantzatu zure begiez

Dantzatu zure begiez  
nire ilargia,  
Dantzatu zure irriaz  
besoak irekita.

Kutsatu nazazu zure indarraz,  
zure listuaz...  
Xuxurlatu hamaika gezur  
bokaletan apurtuta.  
baina dantza dezagun.

Emaidazu lore bat,  
zortzi muxu  
eta abesti bat.  
Mugi gaitezen gauaren erritmoan,  
iparra galduta,  
noraezean  
Argiarekin edo argi gabe..  
Baina dantza dezagun.

Maite Uriarte

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### OLAIA MARTINEZ

BIAK - ILEAPAINDEGIA  
ESTETIZISTA

#### Aurpegi gustoko bat?

Kate Moss-ena.

#### Udazkenerako tendentzia?

Aurpegi uniforme eta natura-  
lak bilatzen dira. Kolore leu-  
nak: arrosak, orlegi ilunak,

marroiak. Ideia bat egiteko, portzelanazko panpina edo emazte ezkongai baten makilajea.

#### Azala zaintzeko zenbait aholku?

Kirola egin eta goizero gorputz osoan krema hidratantea eman. Gauetan berriz, nutritiba bat.

#### Estetikak miraririk egin al dezake?

Ez, horretarako zirujia dago.

#### Depilazioa; soilik emakumeen kontua?

Ez. Gero eta gizonezko gehiago animatzen dira, adin eta perfil guzietakoak, gainera.

#### Depilazio mota bat?

Zirkulazio txarra baduzu, zera epela; ile gogorraren aurka, berriz, zera beroa eta epe luzera begira, laser bidezkoa errentagarriena.

#### Hanka politak edukitzeko sekretua?


Oinetako esturik ez erabili, ezta takoi alturik ere.

#### Zein erlaxazio masaje gomendatzen duzu?

Kiromasajea edota drenaje linfatikoa.

## komikia

Hil da gero...



Kokoe 074

## [ AKORDATZEN NAIZ ]



### FELISA BERGARETXE

1915ean jaioa

#### «Karnabalak»

**K**arnabaletan "numero uno" nitzan ni. Beti disfrazatzen nitzan. Urte baten, akordatzen naiz, dantzari jantzi nitzan. Inok ez zakixan zein nitzan, maskaria, pelukia eta txapela ipiñi nittun eta; mutilla nitzala pentsatzen zaben. Plazara urten nitzan aureskua dantzatzer, eta jendiak benetako dantzarixa nitzala pentsau zaban.

Edozer gauza jaxten gendun. Et-xian billatzen genduazen erropa zaharrekin urtetzen giñan. Ez zan oin bezela disfrazza dendan erosten.

Berbenan dantzan ibiltzen giñan karnabaletan, eta oindiokan nobixuak ez giñala, gero nere mutilla izan zanak atera ninddun dantzara. Harek ez zakixan dantzan, eta neuk eruaten naban.



## [ GURE BERBAK ]

### Baldintzazko esaldixak (3)

Gaurkuan baldintzazko esaldixen azken atala izango da. Gaurkuak ez dira berez baldintzazko esaldixak edukitzen dituen atzizkixak; berez, bestelako esaldixen atzizkixak dira, baiña kasu batzuetan baldintzazkuen esanahixa edukitzen debe. Hauek dira horretako batzuk:

#### -eNIAN

(Eskelia) geuria ez danian, pozik gaiñera. (...) - Ez. Zeatik eze, behiñ sua han ez zaganian, ez zaban esplotauko lenagotik esplotau ez dabanian.

#### -eLA

Por ejenplo, zapatuan San Isidro eguna dator, eta orduan Arratera jungo gera, ondo gerala.

#### -TZERA


Hori egixa izatera, ni ere hasiko nok lan horretan.

Jesus Mari Makazaga



### ESKERTZA

2006ko urriaren 7an, 86 urte zituela hil zen **Vicenta Izaguirre Epele**ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### ESKERTZA

2006ko urriaren 16an hil zen **Txomin Osoro Barrenetxe**ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



**JOSE URRUTIA** MAKETA EGILEA

## «Aurreneko maketa izateko oso pozik nago emaitzarekin»

*Jose Urrutiak etxeko ateari ireki dizkigu bere maisulana hurbiletik ikusteko aukera izan dezagun. Lanbidez tornularia eta mantenimenduko nagusi izandako 73 urteko elgoibartar honek, betidanik izan ditu gogoko eskulanak. Berak jakinerazi digunez, etxerako "txapuzatxo" asko egin izan ohi ditu. Hala ere, sekula ez zuen aurretiaz maketen munduan jardun eta honakoa dugu Josek estreinakoz burutzen duen itsasontzi baten maketa. Arte lan hau, Josek bere eskuez eta inoren laguntzarik gabe, buruturiko San Felipe izeneko espainiar galeoiaren kopia zehatza eta dotorea dugu.*

*Zertzelada gisa, esan, San Felipe itsasontziaren jatorriaren eta historiaren inguruan, informazio argirik ez dagoela. 1690. urtean San Felii de Guixols-eko ontzitegian uretaratu omen zuten eta garaiko espainiar amadaren gerraontzi bereizgarri eta garrantzitsuenetako bat izatera iritsi omen zen.*



### PENTSATU ETA EGIN

Duela laupabost urte, liburu batean, aipaturiko itsasontziaren argazkia ikusi eta denborapasa moduan, ontziaren maketa eraikitzen hasi zen. Honen harira, esan beharra dago Josek oso gustoko duela itsasoa. Hortik, itsasontziekiko bere zaletasuna.

Josek adierazi digunez, jubilatuta ostean bi urtez, alboratuta eduki zuen maketa. Baina, denbora hori igarota, berriro ere maketarekin jarraitu zuen. Josek ez daki zehazki zenbat ordu eskaini ote dizkion artisauek honi, baina bere hitzetan, maketatzaile onek 4.000-5.000 bat ordu behar izaten dituzte.

Jose gogotsu, presarik gabe eta ordu-tegi finkorik gabe aritu da itsasontziaren sortze prozesuan. Pixkanaka eta piezarik pieza joan da itsasontziari itxura ematen. Era berean, behin eta berriaz azpimarratu digu bere egitekoan pazientziak jokatu duen paper erabakiorra.

Elgoibartarraren xede nagusia, hasiera batetik, San Felipe ontziaren maketa bukatu ahal izatea izan da. Hori lortu ezezik, azken emaitzarekin oso pozik geratu da.

Josek ontziaren benetako neurriak errespetatu ditu. Horretarako, bat ehunen eskala erabili du. Hori dela eta, oso pieza nimoioekin aritu da lanean. Ondorioz, lan





*Beirate handi batean sartu du Jose Urrutiak San Felipe, 1690. urteko galeoi espainiarraren maketa.*

egiteko erabili duen tresneria, pieza txiki-tara moldatu behar izan du. Horren adibide argiena, Josek berak eginiko miniatu-razko tornu bat dugu.

#### **ERABILITAKO MATERIALA**

Boj egurra erabili du Josek bere itsasontzia egiteko. Egur ona da eta horren isla, egurrean atzeman daitezkeen tonalitate ederrak ditugu. Gisa berean, jatorrizko itsasontziaren xehetasun guztiak aintzat eduki ditu: masta edo untzi-hagak; beraretan gora igotzeko eskailerak; hari finetako sare eta sokak; ontziaren sotora zuzentzen diren eskailerak; ontziaren argiak (horretarako, lepokoak egiteko erabiltzen diren kristalezko kanikatxoak erabili ditu); bi txalupa txiki, kanpai txiki bat...

Guzti honez gain, bereziki, arreta deitu digute latoizko ehun kainoi txikiek.

#### **ZAITASUNAK**

Josek aitortu digunez, piezen kokapenak eman dio lanik handiena. Itsasontziaren oinarria behin amaitu ostean, tentuz

eta mimo ikaragarri aritu da pieza eta atal txikien lanean: atal ezberdinak moztu, uretan beratzen utzi, lixatu, itsasgarria eman, margotu, berniza eman...

Honez gain, ontzi honek mugikortasuna ere badu, hainbat poleari esker.

**«Ontzi honek mugikortasuna ere badu hainbat poleari esker»**

lido beretik jarraituz, aipatu zenbait pieza konkritu aurkitu eta bereganatzeak, makina bat buruhauste sortarazi dizkiola Joseri.

Esaterako, ontziaren banderak eskuratzeke, Bilboko Getxo etorbidean dago-

en denda jakin batera, jo behar izan zuten. Hau gutxi balitz, bertan erakutsi zizkieten San Felipe ontziaren zutoihalak tamainaz handiak ziren eta honenbestez, ez zen berak behar zuena. Bestelako erreferentziarik ezean, ordea, banderak besapean hartu eta Elgoibarrera itzuli zen, herriko dendaren batean banderaren miniatu-ratzko kopiak egingo zizkieten itxaropenarekin. Alabaina, paperaren fintasuna zela eta, ez zuen zorterik izan eta harat eta honat ibili ostean, azkenean, Eibarren, lortu zuen berak nahi zuena.

Kontuak kontu, Joseren hitzetan maketari eskainitako lan eta orduak pena merezi izan dute. Aurten, martxoaren 31an bukatu zuen maketa. eta herriar ugari izan dute maketa hau ikusteko aukera, "Muebles Anton" altzari dendako erakuslehoian egon baita ikusgai.

Elgoibartarrak dagoeneko, bigarren maketan burubelari dihardu. Oraingo honetan, gondola bat hautatu du. Ia hurrengo batean ere, Joseren bilduma eta erakusketak propioa ikusteko abagunea dugun.

## [ PROTAGONISTA ]



### Luis Mazzantini

Luis Mazzantini toreatzaile elgoibartarra jaio zeneko 150. urteurrena bete zen urriaren 10ean. 1856. urtean jaio zen Errosario kalean, eta 1926ko apirilaren 25ean hil zen Madrilen. Toretzailearen oroimenez, Elgoibarko Mazzantini Peñak ekitaldi desberdinak antolatu ditu. Zezen munduko adituek eskainitako zenbait hitzaldi eskainiko dituzte, baina, ekintza aipagarriena aldizkari baten publikazioa izango da. Mazzantini Peñak, "Zezenak Elgoibarren" izeneko aldizkaria kaleratuko du. Lehenengo alea Gabonetan aterako da, eta hurrengoa 2007ko Trinitateetan.

## [ NOTIZIA ]

### 91.500 euro erabiliko ditu Udalak Madalako errotonda ingurua berritzeko

**E**lgoibarko Udalak Madalako Errotonda eta Urasandi auzoaren azpiko aldean dauden lantegien arteko ingurunea berrituko du. Zonalde honetan, enpresa zahar asko dago, batzuk itxita, besteak abandonatuta... industriaren eragina nabari da, eta Udalak, ingurune hau urbanizatzeko erabakia hartu du.

#### 91.500 euro

Gaztetxeko lokaletik hasita, Ger eta DMP enpresak dauden ingurura arteko zonaldea berrituko da.

Ingurune guztia garbitzeaz gain, lurra asfaltatuko da, Gaztetxera joateko espaloi bat egingo da, berdeguneak sortuko dira, eta 16 autorentzako aparkalekua ere egingo da, horietako bat gutxituentzako



izango delarik. Hau guztia egiteko, zenbait eraikuntza zahar botatzea aurrirakusten da. Guztira, 91.500 euroko aurrekontua izango du proiektuak.

## [ ZENBAKIA ]

# 27

Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak 27 herritar omenduko ditu datorren domekan, Arraten egingo den ekitaldian. Helburua, odola emateagatik eskerrak ematea da. 50 aldiz odola eman duten bi gizon, 40 aldiz eman duten hiru emakume eta 25 aldiz eman duten beste 22 herritar omenduko dituzte.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Ikusgarria benetan aste honetako erretratua! Joan zen astelehenean, Azkoitiko bide berriatik Elgoibarrera zetorren kamioia frenorik gabe gelditu zen, eta San Antolineko errotonda gainetik pasatu ondoren, Deba ibaira erori zen. Farola eta auto bat eraman zituen aurretik. Kolpe ikaragarria izan zen, baina sinestezina badirudi ere, ez zen ezer larririk gertatu, dena susto handi batean geratu zen. Zorionez, kamioi gidaria eta autoetako ibiltariak bizirik atera ziren. Hilabete gutxiren barruan, ingurune honetan gertatzen den bigarren istripua izan da.

## 1744. urtean itxitako arkua ireki dute Udaletxe azpian



## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Kontsumo Erakusketa ibiltaria

Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Erakusketa ikusgai dago Kultur Etxeko sotoan. Telefonía eta interneti buruzko erakusketa da. Helburua kontsumitzaile eta erabiltzaileei euren eskubide eta betebeharren berri ematea da. Erakusketa hezigarria, dinamikoa eta partehartzailea da. Asteazkenetik larunbatera bisitatu daiteke goizeko 10:00etatik 14:00etara eta igandetan 12:00etatik 14:00etara.



### Psikomotrizitate saioak

Iaz izandako arrakasta ikusita, Elgoibarko Izarrak Psikomotrizitate saioak antolatu ditu aurten ere. Helburua haurraren heldutasuna, identitatea eta gorputz osotasuna lantzea da. Izena emateko epea zabalik dago. Interesatuak 943 741626 telefonon jasozakete informazio gehiago.

### Euskaldun zaharrak Tertuliak egitasmorako

Elgoibarko Izarrako Tertuliak programarako euskaldun zaharrak behar dira. Euskaldun berriekin astean ordubetez euskaraz hitz egiteko prest dagoen jendea behar da. Interesatuak 943741626 telefonora deitu dezakete.

### Miriam Ibarluzea San Migel jailetako txekorraren irabazlea

San Migel auzoko jaietan zozketatu zen txekorraren irabazlea agertu da. 5.531 erifa zenbakiarekin, Sagasti baserriko Miriam Ibarluzea izan da irabazlea. Zorionak!


Aste honetatik aurrera, Elgoibarko udaletxeak 7 arku izango ditu, aintzina bezala. 1744. urtean arku hau itxeko erabakia hartu zuen Udalak, diotenez, aire korronte handiak sortzen zirelako udaletxeko arkupean. 262 urte pasa dira ordutik, eta orain Udalak, arku hori berriro ireki du. Herriko Alde Zaharra berreskuratzeko proiektuaren barnean sartzen da obra hau. Marivi Agirregomezkorta alkateak azaldu duenez, "Plaza Handia eta Giza Eskubideen enparantza lotzea zen gure nahia, eta bide batez, udaletxeko arkupean Giza Eskubideen enparantza jarriko

dugu iturria ikustea nahi genuen. Alde Zaharra berreskuratzeko lanetan obra egokia iruditu zitzaigun".

### Era guztietako iritziak

Aldaketa guztiekin gertatzen den bezala, hau ere, ez da herritar guztien gustukoa izan. Batzuk oso pozik azaldu dira, era honetan, bi aisialdi gune elkarlotzen direlako, eta pasiatzeko leku polita lortzen delako. Beste batzuk, aldiz, herriko gune babestu bat galtzen dela diote, eta euria eta hotza egiten duenean ezin izango dela udaletxeko arkupeetan egon uste dute.

## Fernando Bert gose greban dago urriaren 15etik



Fernando Bert-ek azaroaren 8an bukatuko du Frantziako Estatuak ezarri zion kondena, eta seguruenik, Espainiako mugan askatuko dute, Estatuko poliziaren esku uzteko. Egoera horren kontra hasi du Bert-ek baraualdia, eta entrega eguneraino luzatzeko asmoa dauka. Bert-i elkartzasuna adierazteko ekintza desberdinak antolatu ditu Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak. Gaur iluntzeko 20:00etan giza katea egingo da, bihar, eguerdiko 13:30ean prentsaurrekoa Plaza Handian. Urriaren 25ean, 27an eta azaroaren 1ean enkarteladak egingo dira Plazan eta azaroaren 3an manifestazioak egingo da "Feran Etxera" lemapean.

### ▶ **ASHFAQ AHMAD**

**PAKISTAN [ASIA]**

# «Hemengo jendeak oso kasu gutxi egiten du, nik argi daukat zerura joango naiz»

DUELA HIRU HILABETE IRITSI ZEN ASHFAQ AHMAD ELGOIBARRERA. LAN BILA ATERA ZEN DUELA 6 URTE BERE HERRIALDETIK. PAKISTAN UTZI ETA ESPAINIA ALDERA ETORRI ZEN. BARTZELONA, LOGROÑO ETA BILBO ALDEAN IBILI ONDOREN, ELGOIBARRERA IRITSI ZEN. SAN BARTOLOME JALETARAKO IREKI ZUEN BERE NEGOZIOA, ASKORENTZAT EZEZAGUNA, BAINA GERO ETA EZAGUNAGOA. EUSKAL DONER KEBABEKO JABEA DUGU.

#### ▶ **Zergatik hartu zenuen Pakistan lagatzeko erabakia?**

Han ez zegoen lanik, oso egoera tristean bizi ginen. Pakistanetik alde egin behar nuen, ez neukan beste erremediorik. Nire ilobak joan ziren lehenengo, eta haien esperientzia ikusita, nik ere gauza bera egitea erabaki nuen.

#### ▶ **Nora joan zinen?**

Alemania, Ingalaterra eta Frantzia aldean ibili nintzen lehenengo, eta gero Espainiara iritsi nintzen. Lehenengo Bartzelonara, gero Logroño aldera, Bilbora eta orain Elgoibarrera. 6 urte inguru daramatzat nire herrialdetik kanpora, 2000. urtean alde egin nuen Pakistanetik.

#### ▶ **Hasieratik egin al duzu lan Kebab batean?**

Ez. Denetariko lanak egin ditut. Bartzelonan bi urtez egon nintzen. Nekazaritza, lantegiak... ofizio desberdinetan aritu nintzen. Ondoren, Logroñora joan nintzen, eta han nengoela, nire ilobek deitu zidaten, Bilbora joateko esanez. Beraiek Bilbon Doner Kebab bat zeukaten, eta negozioa oso ondo zihoan. Halaxe egin nuen. Bilbon urtebete inguru egon nintzen, eta gero, nire negozio propioa ireki nuen Logroñon. 2006an etorri nintzen Elgoibarrera.

**«Ramadam-ean ezin dut ezer jan edo edan eguzkia ezkutatu arte»**

#### ▶ **Nolatan aukeratu zenuen Elgoibar?**

Leire, nire lagunak, senideak ditu Eibarren eta Elgoibarren. Oso erraza zen guretzat hona etortzea. Gainera, Pakistaneko jende gehiago bizi da Elgoibarren, eta inguruko herrietan ere badituzte lagunak, Eibarren eta Azkoitin, esaterako. Ez nago bakarrik. Urasandin bizi gara, eta momentuz behintzat oso gus-

# io erlijioari, la»

tura gaude. Jendeak oso ondo hartu gaitu. Hori bai, nire herrialdearekin eta bertan lagatako senideekin izugari gogoratzen naiz. Astero hitz egiten dut beraiekin eta datorren hilean bisitan joango naiz.

► **Elgoibar bezalako herri txiki batean Kebab bat irekitzea, ez al da ausartegia?**

Bizitza honetan arriskatu egin behar da, aurrera egin behar da. Momentuz oso ondo doa negozioa. Abuztuan ireki genuen, San Bartolome jaietarako, eta jendea asko gustatu zaito. Doner Kebab-a probatzen dutenek errepikatu egiten dute. Janari ezezaguna da, baina gero eta ezagunagoa, asko ari da zabaltzen.

► **Zer da doner kebab-a?**

Donerak arkume eta oilasko haragiz egindako opilak dira. Ez da ogia, talo antzerako masa bat da. Garbantzo irinez eta barazkiz eginiko bolatxo batzuk ere jari daitezke, edo shami izeneko behi hanburgesa. Dena nahastuta edo bakarka jari daiteke, eta honi bakoitzak nahi duen saltsa gehitu ahal zaio. Txerriak debekatuta daukagu musulmanek eta ez dugu erabiltzen.

► **Kebab-aren jatorria turkiarra omen da...**

Bai, hala da, baina Pakistanen asko jaten da. Ondo ezagutzen dugu. Hemen inguruan ireki diren Kebab gehienak pakistaniarrenak dira, guk ekarri dugu Kebab-a hona.

► **Zer gehiago saltzen duzue?**

Hau gozotegi bat da, beraz, pastel eta tartak ere saltzen ditugu, dena geuk egindakoa da. Bestalde, te desberdinak ditugu, txokolata... eta zerbait berezia eskatzen badigute, ekartzen saiatzen gara.

► **Edari alkoholdunik ez duzue. Erlijioak debekatzen dizuelako al da?**

Ez. Guk ezin dugu edan, baina hori ez da alkohola ez saltzeko arrazoia. Hau gozotegia denez, ez daukagu alkohola saltzeko lizentziarik, baina izango bagenu ere, ez genuke salduko, ez zaigu interesatzen.

► **Erraza al da kristau artean musulmana izatea?**

Bai, ez daukat inolako arazorik. Orain Ramadam-aren hilabeteen gaude. Eguzkia ateratzen denetik sartu arte ezin dugu ezer jan eta edan. Urriaren 23an bukaturiko da. Bestalde, egunean bost aldiz egiten dugu otoitz. Jende askok ez du ulertzen, baina fede kontua da. Fededuna naiz, eta nire erlijioak agintzen duen guztia egiten dut. Hemengo jendeak oso kasu gutxi egiten dio erlijioari. Nik argi daukat zerura joango naizela.



## PAKISTAN

- **Hiri-burua:** Islamabad
- **Azalera:** 803,940 km<sup>2</sup>
- **Biztanleria:** 157.935
- **Bizi itxaropena:** 62,9 urte
- **Erlijioa:** Musulmanak %97, (Sunnitak %77, Shi'itak %20), Kristauak eta Hinduak.
- **Txanpona:** Rupia.



# Inkesta

900.000 lagunaren soldata 804 euroko pobrezia mugaren azpitik dago Euskal Herrian.

## Biziko al zinateke 804 euro baino gutxiagoko soldatarekin?

**JUANFER AZKONA**

Komertziala  
43 urte



“Zaila da, baina baietz uste dut. Badirudi ezin dugula oporrik gabe edo autorik gabe bizi. Ohiturak aldatu beharko nituzke. Hala ere, soldata oso bajuegia da.”

**AMELIA ALMEIDA**

Kobratzailea  
28 urte



“Ez, oso gutxi da. Bakarrik, ezinezkoa da 804 euroekin bizitzea. Alokairua edo hipoteka ordainduta, 300 euro dituzu bizitzeko, eta bizimodua garesti dago.”

**ROSA M<sup>a</sup> PIÑEIRO**

Enpresaria  
44 urte



“804 euroko soldatarekin bizitzea ezinezkoa da. Etxea ordaintzen ari bazara, behintzat, hori baino gehiago behar da, eta alokairuan bizi bazara ere bai.”

**PAKI BARREIROS**

Garbitzailea  
53 urte



“Ni uste dut biziko nintzatekeela. Egoeraren araberkoa da, familia, etxea ordainduta duzun edo ez.. Hala ere, oinarrizko bizimodua egiteko nahikoa dela uste dut.”

## [ BAI ala EZ? ]

**Drogen eraginez ondo informatuta gaudela uste al duzu?**

**BAI %33**

“Bai, gaur egun denon eskura dago drogen eraginei buruzko informazioa. Ez duenak informazio hori lortzen, ez duelako nahi da. Ezin da esan informaziorik ez dagoenik.”

**EZ %67**

“Ez, informazioa badago, baina kontsumitzen den tokietan informatu behar zaio gazteari. Kontsumoa gizarteratuta dago, ohikotzat hartzen da. Ondorioen berri eman behar zaio gazteari.”

**Datorren asterako.... Iban Zubiaurrek 5 milioi euro ordaindu beharko dizkio Realari. Egokia iruditzen al zaizu Iban Zubiarreri jarri dioten kalte-ordaina?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 ¢ + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

## Elgoibar Ikastola Zernola Olinpiadan

**E**lhuyar Fundazioak Zernola Olinpiadaren bosgarren edizioa jarri du martxan DBH1 eta DBH2. mailako ikasleentzat. Bertan, Euskal Herri osoko ikasleek hartu dezakete parte. Elgoibarko ikastetxeen artean, Elgoibar Ikastolako DBH 2A eta DBH 2Bko ikasleek hartuko dute parte. Olinpiada honen helburua, gaztetxo-  
ei zientzia eta teknologia gai dibertigarriak izan daitezkeela erakustea da. Gaztetxoek, teknologia berriez baliaturik, zientzia eta teknologiaren inguruko hainbat proba gainditu beharko dituzte 2006-2007 ikasturtean. Lehiaketa urrian hasi eta maiatzean amaituko da. Olinpiada-amaierako sariez gain, hileroko



sariak izango dira hilabete bakoitzeko probak hobekien egiten dituen gelarentzat. Besteak beste, Donostiako Aquariumek, Zientziaren Kutxaguneak, Kukuxumusu eskainitako sariak.

## [ IKAS KONTUAK ]

### "Mozorro festa" izango da bihar, Plaza Handian

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamai-  
ka Aisialdi Taldeak antolatuta, "Mozorro festa" izango da bihar, larunbata, urriak 21, Plaza Handian. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1 eta 2. mailako ikasleentzako jaialdia izango da. Dena dela, denak daude gonbidatuta. Goizeko 11:00etatik aurrera, kolorez jantziko da Plaza Handia. Jolasak, abestiak eta eskulanak egingo dituzte bertara hurbiltzen direnek. Mozorro desberdinak prestatu eta aurpegia margotuz mozorrotuko dira umeak.

## [ IRTEERAK ]



### Herri Eskolakoak Azpeitiko Tren Museoa

Herri Eskolako ikasle eta gurasoak Azpeitiko Tren Museoa izan ziren. Garai hartako trenak ikusi eta lurrunezko trenean ibili ziren. Bide batez, Erdi Aroko azokaz gozatzeko aukera izan zuten.



### Pilarika Eguna ospatu zuten Pilar Ikastetxean

Pilar Ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoek, Pilarreko Ama Birjinaren jaia ospatu zuten urriaren 12an. Eguerdian meza izan zuten ikastetxeko gimnasioan eta ondoren, luntxa. Esan digutenez, giro onean pasatu zuten eguna.

# PSIKOMOTRIZITATE saioak

(Aucouturier metodoan oinarriturik)

Saioen helburua haurraren heldutasuna, identitatea eta gorputz osotasuna lantzea da. Bi irakasle psikomotrizistak emango dituzte saioak.

Izena emateko epea: **urriak 31**

Prezioa: **60 euro**

Astean **60 minutuko saio bat** izango da (azarotik-martxora)

Informazioa eta izen-ematea: Elgoibarko Izarra. 943-74 16 26 (Nagore)

**2-5** urte bitarteko haurrentzat



Antolatzaileak:



LIQUIDARRO IZARRA



ELGOIBARKO IZARRA

Laguntzaileak:



**JULIA DARROCHA**  
MOJA

## «Pena sorrarazten dit jende gazte gehiagok bide honetatik ez jarraitzeak»



*Julia Darrocha 40 urteko emakume portugaldarrak Santa Klarako komentuan bederatzita urte daramatza. Gaur egun, komentuko mojarik gazteena da. Sortzez Marco de Canaveses herrialdekoa dugu; hamar anai-arrebek osaturiko familia apal bateko partaide. Txikitatik, oso pertsona sisisduna izan da eta bere bizitza, erlijioari eta kristau bideari lotua egon da. Bere bizipenen eta esperientziaren inguruan solasean aritu gara.*

### ► Nola erabaki zenuen moja izatea?

Portugalen gaztaro gogorra eduki nuen. Hamalau urterekin ikasketak utzi eta lanean hasi behar izan nuen familia baten etxean. Garai hartan, hainbat arrazoiren ondorioz, depresio batean murgildu nintzen. Hala ere, zailtasunen erdian, fedea izan da aurrera egiten lagundu didana. Betidanik, elizarekin harremana mantendu dut; katekisiaren bidez, otoitz eginaz...

### ► Nolatan etorri zinen Euskal Herrira?

Estreinakoz, 19 urterekin etorri nintzen, nire ahizpa Ermura ezkondu baitzen. Garai hartan, ez zen batere erraza izan lanpostu bat aurkitzea, gaztelera ez nuelako apenas ulertzen. Urtebetez Eibarren lanean aritu ostean, Portugalera itzuli nintzen, baina, ostera ere, Euskal Herrira buetatu nintzen, oraingoan, Elgoibarrera. Hemen, 90 urteko emakume bat zaintzen hasi nintzen eta bost urte igaro nituen bere alboan. Emakume hau igandero meztatara eramaten nuen eta horrela, ezagutu nituen Santa Klarako klarisak. Denbora guzti honetan, nire barneko argi horrek pizturik iraun zuen.

### ► Noiz eman zenuen moja izateko urrats erabakiorra?

Printzipioz, Erromara baimen bat eskatu genuen laika konsagratu gisa, Santa

Klarako komentuan bizi ahal izateko. Horrela, bost urterako baimena eman zidaten. Epe hori igarota, pausoa eman nuen, abitua eta estalki zuria jantziz. Bi urte beranduago, prozesioa egin dut, pasa den, uztaillean, alegia. Ospakizun honen bidez dagoeneko moja bilakatu naiz.

«Zailtasunen erdian, fedea izan da aurrera egiten lagundu didana»

### ► Zer eginkizun dituzue komentuan?

Garbilekua dugu eta arropa garbitzen dugu, herriko soziedade, apaiz nahiz heritarren arropak. Eguneroko otoitz eta eliz ospakizunet gain, etxeko lanak burutzen ditugu. Zailtasunei dagokionez, musikazalea naiz oso. Pianoa eta organoa jotzen dut apur bat, eta aisialdian, paseatzea dut gustoko. Euskera ere, ikasten dihardut AEKn.

### ► Misiolari lanetan aritzea inoiz burutik igaro al zaizu?

Misiolarien eginkizuna erabat miresten dut, baina, ez dut neure burua horrelako leku batean ikusten. Gaztetatik osasun arazoak pairatu ditut; eta noski, horrelako herrialde batera joateko, indartsua eta jasankortasun handiko pertsona izan behar zara.

### ► Elizak dituen hainbat pentsamendu eta jokaeren inguruan zer iritzi duzu?

Nahiko zaila da elizatik hitz egitea. Hala ere, ikuspegi askok ez naute erabat kontentitzen. Gaurko mundu eta gizarteak lastertasun handian dihardu aurrera, eta egungo jendea sentiberagoa dela iruditzen zait. Bien bitartean, elizak gauza askoren aurkako postura izaten jarraitzen du.

### ► Zein da egungo komentuen egoera?

Burgos aldean dagoen Lema komentua, izango da estatuko beteena, jende gazteari dagokionez. Bertan, 117 neska bizi dira. Osterantzean, ordea, inguruotako mojetxeak nahiko hutsik daude. Pena sorrarazten dit jende gazte gehiagok bide honetatik ez jarraitzeak. Baina horretarako, aldatuta bat eman beharko litzateke, elizak gizartearekiko hurbilagoa izan beharko luke. Bestalde, baloreak apur bat galdu direla uste dut. Gizartearen lehentasunak kontsumismoari eta erosotasunari atxikituta daudela pentsatzen dut, salbuespenak salbuespen.





[b]

astelehenetik aurrera...  
**www.elgoiBARREN.net**

## “La Senda Aborígen” hitzaldia gaur Gaztetxean

Elgoibarko Gazte Asanbladak antolatuta, Guillermo Pikero idazleak “La Senda Aborígen” liburua aurkeztuko du gaur gauean, 22:30ean, Gaztetxean. Hitzaldi-etzabaida partehartzailea izango da. Autorearen esanetan, “milaka urte dituen historia honetan gizakia bakean bizi zen, naturarekin bat eginik. Gizartea berdintasunean oinarrituta zegoen, ez patriarkala eta borrokaren kontrakoa zen. Poliki-poliki kultura arrotzek komunitate hauek menperatu dituzte, baina euskarak oraindino dirau”. Aurrehistoriaren berri-kusketa bat egingo du Guillermo Pikero.

## Bideo Forum-a

Haizea Emakume Taldeak antolatuta, “por qué las mujeres queremos más” bideo forum-a izango da gaur, gaueko 22:00etan Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Hizlaria Eskame Larrinaga izango da.

## Liburutegiaren Eguna izango da urriaren 24an

Datorren urriaren 24an Liburutegiaren Eguna dela-eta, bertako bazkideen artean sariak banatuko dira. Liburu bat entregatzen denean fitxa bat bete behar da, eta jasotako fitxa guztien artean, liburuak eta hainbat emanalditarako sarrerak zozketatuko dira. Umeen artean “Txanogorritxo eta marmubi zaporeko gaztainak deituriko antzerki emanaldietarako sarrerak zozketatuko dira, eta nagusien artean “El Caserio Zartzuelaren emanaldirako. Bestalde, urriaren 26an Joseba Ramirez ipuinkontalariaren emanaldia izango da 17:00etan hasita. 4 eta 5 urteko umeentzako saioa izango da.

## Isidro Larrañaga akordeoi orkestra Herriko Antzokian

Urriaren 27an Tolosako Isidro Larrañaga akordeoi orkestraren kontzertua izango da Herriko Antzokian, arratsaldeko 19:30ean. 14 eta 35 urte bitarteko 40 musikarik osatutako taldea da. 1980an sortu zen taldea, eta duela 21 urte hasi ziren emanaldiak eskaintzen. Gaur egun, askotariko musika estiloak lantzen dituzte.

## Haurralde Elkarteak 60.000 euro jaso ditu Edu Arrillagaren lan bati esker

**G**ipuzkoako Foru Aldundiak 60.000 euroko dirulaguntza eman dio Haurralde Elkarteari, Edu Arrillagak Dominikar Errepublikako umeen inguruan egindako argazki bildumagatik. Haurralde Elkarteak proiektu interesagria prestatu du Edu Arrillagaren “Kaleko umeak” argazki bildumarekin, eta proiektu hori saritu du Aldundiak. Proiektu honen bamean, Dominikar Errepublikako jendearekin hitzaldiak eskainiko ditu, erakusketak antolatuko dira, dokumentalak egin eta liburu bat argitaratuko du argazkilari elgoibartarrak. Liburu honetako testuak prestatzen Jasone Osoro idazle eta kazetari elgoibartarrak lagundu dio. Bertan egindako elkarrizketak, eta beste hainbat testurekin homituko da liburua. Edu Arrillagaren nahia hauxe da: “hango errealtatea erakustez gain, jendea bertako egoerarekin apur bat sentsibilizatzea nahi dut”.



zen, eta bost urteko lan horren saria da “Kaleko umeak” bilduma. Han bitzitakoa gure begiekin ikusteko aukera izango du gu abenduaren 15etik aurrera Kultur Etxean. Bere asmoa, ordurako liburua ere prest edukitzea da.

## Elgoibarko erakusketa abenduan

Bost urtez aritu da Edu Arrillaga Kari-beko lurralde honetan argazkiak aterat-

## Urriaren 26an hasiko da Zine Kluba



- **Urriak 26**  
“Desayuno en Plutón”  
Zuzendaria: Neil Jordan
- **Azaroak 2**  
“La isla de hierro”  
Zuzendaria: Mohamed Rasouloy
- **Azaroak 9**  
“Algo parecido a la felicidad”  
(Donostiako urrezko maskorra 2005ean).
- **Azaroak 16**  
“Honor de Caballería”  
Zuzendaria: Albert Serra
- **Azaroak 23**  
“La noche de los girasoles”

Donostiako Zinemaldiari buruzko ziklo berezia bukatu ondoren, datorren urriaren 26an hasiko da Ongarri Zine Klubaren ikasturte berria. Pelikula guztiak ostegunetan izango dira, gaueko 21:30ean Herriko Antzokian. Ohi bezala, Zine Klubak pelikula alternatiboak eskainiko dizkigu, zine komertzialetik aparte, kalitatezko pelikulak eskaintzen saiatuko dira aurtengoan ere. Goiko zerrenda honetan ikusi ahal dituzue lehenengo bost filmak.

DEBAJAZZ MUSIKALDIA URRIAREN 20TIK 28RA

## “Los reyes del KO” taldearen eskutik blues doinuak entzungai izango dira gaur Herriko Antzokian, gaueko 22.15 etatik aurrera

Aurten “Los Reyes del KO” musika taldearen kontzertuak emango dio irekiera Debajazz jaialdiari. Ekimen hau, 2004. urteko udazkenean Soraluze-ko Errabal kultur elkarteak sortu zuen; kalitatezko jazz jarduerak Debabarrenako herrietara gerturatu eta gure artean, inguruko eta ez hain hurbileko musikari bikainak izan ditzagun.

Marcos Coll eta Adrian Costa musikari galiziarrek pasa den martxoan, grabatu zuten “Hot Tin Roof” izeneko beren diska berria, irailaz geroztik kalean dena. Beren abestietan, blues musika lantzen dute; estilo tradizionaletik, elektrikora doazen doinuak. Baita, funky, soul edo sustrai espainiarrak dituzten eritmoak ere.

### Musika ibilbidea

Marcos (taldeko ahosoinu jolea) eta Adrianek (gitarra eta ahotsa) eskarmentu handia dute musikaren munduan. Biak “Red Blues Band” eta “Blue Rags” taldeetan aritu ostean, “Los niños punkys que tocan blues” izenarekin ezagutara eman zi-



ren Galizian. Aurrerago, “Tonky Blues Band” izeneko espainiar blues talde ospetsuko partaide izan ziren. Bira ugari burutu zituzten, eta Mick Taylor (Rolling Stones) edo Buddy Miles (Jimmy Hendrix) bezalako artistak izan zituzten bidelagun. Hilabete gutxitan, beren aurreneko albuma plazaratu zuten, “Coll Vs Costa”. Hainbat jaialdi eta txokotan jo zuten eta “Ho-

me Made Blues” diskoa argitaratu ostean, Alemaniara bidaiatu zuten 2004. urtean Berlingen finkatuz. Horrela, Europa osoko jaialdi eta lokaletan jotzen hasi ziren eta musikari handiekin elkarlanean aritu dira. Hurrengo kontzertuak Soraluze, Deba, Elgeta eta Mutrikun izango dira.

Honenbestez, musikari handiak ikus eta entzuteko gonbitea egina dago.

**Lanbroa**

**Pintxoetan** sukera zabala

13, Muguruza, 7 Tel.: 943 74 16 76

**Lanbroa**

**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbina-**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera  
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

## XV. SAN PEDROKO TXIRRINDULARI IGOERA

### Jorge Gonzalez nagusi San Pedroko Txirrindulari Igoeran



**H**irugarrenean bai. Azken bi urteetan bigarren postua errepikatu ostean, garaipena lortu zuen Jorge Gonzalezek Idorbe-San Pedroko Txirrindulari Igoeran. Lagun taldeak Julian San Juanen oroimenez antolatzen duen proban, 35 txirrindularik –iaz baino 35 gutxiago– parte hartu zuten. Baliteke Pilarika Egunak jai-zubiarekin bat egin izanak partaidetzan eragina izatea. Alabaina, zaletuek ez zuten huts egin eta bide bazterretan ez zen animurik falta izan. Gonzalezek irteeratik

bertatik ezarri zuen bere legea. Deposito paretik ihes eginda pasa zen eta igoera guztia bakarka egin ostean 14 minutu eta 27 segundutan geratu zuen kronometroa San Pedroko helmugan. Jubenil mailan ari den Mikel Hernandez, plaentxiar gaztea, sailkatu zen bigarren postuan (14:37). Hirugarren postuan, berriz, beti bere maila ematen duen Jose Mari Fernandez "Suso" iritsi zen 14:43ko denborarekin. Inigo Ortuoste sailkatu zen 4. postuan (14:57).

#### Behobia-Donostiarako autobusak

Urtero legez, Udal Kirol Patronatuak 42. Behobia-Donostia lasterketara joateko autobusa jarriko du. Bazkideek 12 euro eta bazkide ez direnek 15 euro ordaindu beharko dute. Izena emateko epea azaroaren 10ean bukatuko da.

Bestalde, lasterketan parte hartu ahal izateko dortsalak aspaldi agortu ziren, hiruzpalau egunetan agortu ere.

Hortaz, 11.000 lagunetik gora aterako dira aurrean ere Behobia eta Donostia banatzen dituen 21 kilometroak antxintxika egitera.

### Adur Juaristik jubencil mailako Euskadiko Ehiza Xehe Txapelketan parte hartuko du

Adur Juaristi eta Carlos Conde, bakoitza bere mailan, antzera xamar ibili ziren Gipuzkoako Ehiza Xehe Txapelketan, batu zuten uzta, baina, ez zen berdina izan. Ehizatu zituen 3 eperrei esker, Adurrek 4. postua eskuratu zuen jubencil mailan. Euskadiko Txapelketarako lehen hiru sailkatuak joaten diren arren, egungo Euskadiko txapeldunak ere sailkapena lortu zuenez, laugarren sailkatua, hau da, Adur, bertan izango da merezimendu osoz. Carlos Condek ez zuen zorte bera eduki. Eskualdeko Ehiza Xehe Txapelketa irabazi ostean parte hartu zuen Sigmako ehiztariak Gipuzkoako Txapelketan. Hiru eper eta faisai bat ehizatu zituen arren, sailkapene-



ko 5. postuan amaitu zuen. Billabonako Juan Iraolak jantzi zuen txapela 9 eper ehizatuta.

### Euskal joko eta jolasak hartu zuten Plaza Handia

Euskal Soin Jarduera proiektuaren baitan, hainbat euskal joko eta jolasetan (sokatira, ingudea, lokotx biltzea, e.a) parte hartzeko aukera izan zuten Pilar Ikastetxeko eta Elgoibar BH eta Debako Mendata institutuak DBH-4ko ikasleek, joan zen eguaztenez, Plaza Handian. Euskal Soin jarduera proiektua duela 7 urte sortu zen, Euskal joko eta jolasen inguruko jaialdiak sustatu eta zabaltzeko asmoz. Kutxak antolatuniko eta Gipuzkoako ikastolen elkartea-

ren baitan dagoen Ikasiker taldeak sustaturiko jaialdi hauek Gipuzkoako herri gehienetan burutzen dira. Ikasleen arteko harremanak sortu eta sendotzea; euskal joko eta jolasak indartzea; euskara eta jolasa komunikatzeko tresna hezitzaile bezala lantzea; euskal kulturaren transmisioa garatzea; herri desberdinetako pilotaleku eta plazak alaitzea; ikastola eta ikastetxeen arteko harremana sendotzea, eta, batez ere, ondo pasatzea dira ekimen honen helburuak.



## ZUBIAURRE AUZIA

# Iban Zubiaurrek 5 milioi euro ordaindu beharko dizkio Realari

**H**ala adierazten du EAEko Justizia Epaitegi Gorenak jakitera eman duen erabakiak: Iban Zubiaurrek 5 milioi euro ordaindu beharko dizkio Realari talde txuri-urdinarekin zuen kontratua hausteagatik. Athletic futbol taldea, berriz, erantzule subsidiarioa dela ebatzi du epaiak. Hortaz, aurretik Donostiako sozial arloko beste epaitegi batek hartutako erabakia berrets du Justizia Epaitegi Gorenak. Azken epai hau Gorenako 3 epaileren artean adostu dute eta hauetako baten boto partikularren arabera, gainera, Zubiaurrek etete klausulan ageri ziren 33 milioiak osorik ordaindu beharko lituzke. Azkenean 5 milioi euro izango dira, ordea, Realak jasoko dituenak, kopuru hau baita jokariak merkatuan zuen balioa, bere Kabuz Realarekin zuen kontratua haustea erabaki zuenean,



epaian jasotzen denez. Epai honen aurkako errekurtsua Epaitegi Gorenaren aurrean aurkezteko epea 10 egunetakoa da.

## Berrikuntzekin hasiko da bihar Eskola Kiroleko denboraldia

Bihar, hilak 21, hasiko da Eskola Kiroleko 2006-2007 denboraldia. Bertan, Elgoibarko ikastetxeetako benjamin eta alebin mailako haurrek eskubaloian, futboleko eta saskibaloian parte hartuko dute. Aipagarria da aurten, estrainekoz, alebin mailako umeak Deba, Mutriku eta Mendaroko umeekin lehian jarriko direla. Futboleko partidak Elgoibar (Mintxeta), eta Debako (Errotazahar) futbol zelaietan jokatuko dira. Eta eskubaloikoak, berriz, Mutrikuko eta Elgoibarko kiroldegietan eta Elgoibar Ikastolan. Partaidetzari dagokionez, 12 taldek parte hartuko dute benjamin mailan (Elgoibarko 10 eta Mendaroko 2). Hauek Elgoibarren jokatuko dituzte partidak guztiak, futbolarekin hasi, saskibaloiarekin jarraitu eta eskubaloiarekin bukatuz. Guztira 180 haur izango dira benjamin mailan parte hartuko dutenak. Alebin mailan 20 talde arituko



dira. Hauetatik 11 Elgoibarkoak izango dira (mutilenak 5 eta neskenak 6), 2 Mendarokoak, 4 Debakoak eta 3 Mutrikukoak. Guztira 260 haur izango dira maila honetan. eskubaloian Elgoibarren eta Mutrikun jokatuko dute eta futboleko Deban eta Elgoibarren. Saskibaloian Elgoibarkoek soilik jokatuko dute Elgoibarren. Taldeak autobusez mugituko dira batetik bestera.

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Haundi 1 - San Pedro 0 (3. maila)  
 Tolosa 1 - Elgoibar 1 (1. erreg.)  
 Elgoibar 1 - Bergara 1 (Jub.)  
 Bergara 1 - Elgoibar 3 (Kad.)  
 Elgoibar 0 - Zarautz 7 (Neskak)  
 Sanse 4 - Elgoibar 1 (Inf. Txiki)  
 Elgoibar 4 - A. Ondarrao 4 (O. Inf.)  
 Amorebieta 4 - Haundi 0 (3. maila)  
 Elgoibar 1 - Usurbil 0 (1. erreg.)  
 Ostedar 0 - Elgoibar 1 (Jub.)  
 Elgoibar 1 - Anaitasuna 1 (Kad.)  
 S. Tomas Lizeoa 2 - Elgoibar 1 (O. Inf.)  
 Elgoibar 0 - Aretxabaleta 0 (Inf. Txiki)  
 Mutriku 4 - Elgoibar 2 (Neskak)

### ARETO FUTBOLA

Kenci 3 - Izkepot 4 (Euskal Liga)  
 Inter Intxaurren 2 - Kenci 4 (Euskal Liga)  
 Kenci 1 - Gure Txokoa 2 (2. maila Gip.)  
 Idiazabal 7 - Kenci 1 (2. maila Gip.)

### ESKUBALOIA

Aterpe/Olalsa 32 - Ermua 10 (Inf. nesk.)  
 Hondarribi 34 - Tecnomeca 24 (Kad. mut.)  
 Hondarribi 22 - Pneumax 18 (Jub. mut.)  
 Portugalete 17 - Tecnifuelle 26 (Senior. mut.)  
 Gasnalsa 15 - Cometel 16 (Jub. nesk.)  
 Basauri 15 - Lojantzi 16 (Senior. nesk.)  
 Tecnifuelle 25 - Basauri 24 (Senior. mut.)  
 Pneumax 23 - Hondarribi 25 (Jub. mut.)  
 Tecnomeca 14 - Hondarribi 14 (Kad. mut.)

### ESKU PILOTA

Eibar 7 - Lagunak (Atxotegi/Loiola) 22 (2. Nag.)  
 Lagunak (Ariz/Liz) 22 - Hernani 19 (1. Jub.)  
 Lagunak (Arrib/Guene) 22 - Hernani 15 (2. Kad.)

## [ AGENDA ]

### ESKUBALOIA

Kiroldegian

**Zapatua, 21**  
 09:45 Olalsa - Aterpe (Inf. nesk.)  
 11:15 Hotel Txariduna - Pulpo (Inf. mut.)  
 16:00 Tecnomeca - Askartza (Kad. mut.)  
 17:30 Pneumax - Askartza (Jub. mut.)  
 19:00 Tecnifuelle - Egia (Senior. mut.)  
**Domekia, 22**  
 09:00 IMH - Groseko (Kad. nesk.)  
 10:30 Cometel - Zarautz Aiala (Jub. nesk.)

### ARETO FUTBOLA

Kiroldegian  
**Domekia, 22**  
 12:00 Kenci - Astraburko (Euskal Liga)

### ESKU PILOTA

Ikastolako frontoian  
**Barixakua, 20**  
 21:00 Lagunak - Urnieta (2. maila Kad.)  
 21:30 Lagunak - Añorga (1. maila Jub.)  
 22:15 Lagunak - Lizardi Igeldo (3. maila Nag.)  
 23:00 Lagunak - Lazkao (3. maila Nag.)

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

▶ Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trasteroa, berogailua. Berritua. **628904891**

▶ Etxea salgai Erdialdean. 88m<sup>2</sup>. Berritua, altzariekin, ganbara. Kanpoaldera, eguzkitsua. 202.000 euro. **659 553 802**

▶ Etxea salgai Errosario kalean. 80m<sup>2</sup>. Merke. **695783092**

▶ Kanpoaldera ematen duen duplex-a salgai Urasandin. Berritua. 3 logela, 2 komun eta ganbara irekia. **653 715141**

▶ Etxea salgai Urasandin. 4 logela eta trasteroa.

**636199732 (19:00-21:00)**

▶ Etxea salgai Erretxindin. 90m<sup>2</sup>. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. **680707639**

## ETXEA SALGAI MENDARON

Mendarozabal Auzoan.  
3 logela, sukaldea,  
komuna eta egongela.  
Dena kanpoaldera.  
Bizitzera sartzeko prest.  
**943 03 38 44**  
**686 62 21 92**

▶ Etxea salgai Plaza Txiki inguruan. 71,5m<sup>2</sup>. Gas naturala, igogailua, ormigoizkoa. Bizitzera sartzeko moduan. Etxeko argazkiak ikusgai [www.esnips.com/web/etxepolita](http://www.esnips.com/web/etxepolita) helbidean. **660884060**

▶ Etxea salgai Mendaro erdialdean. 3 gela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. Garaje itxia, ganbara, berogailu zentrala, erdi jantzia. **659801032**

### ALOKAIRUA

▶ Bi logela hartuko nituzke alokairuan. **943 74 88 83**

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Premiazkoa. **666032715**

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **620049420**

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibar edo Mendaron. **687209139**

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **669223527**

▶ Negozioa hemen dudalako, etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibar edo Mendaron. **697897899**

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo Eibarren. **690296857**

## [ AUTOAK ]

▶ 125cc-ko errepideko motorra salgai. Daelim Roadwin 2006. Berria, 2.000km, errebisioa pasatu berri, aseguria 2007ko maiztzer arte. **653735849**

▶ Opel Corsa autoa salgai. Oso egoera onean. 900 euro. (Josu) **608394305/943743610**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

▶ Garaje itxia salgai Jausoron. **686 22 44 38**

▶ Garaje itxia alokatzen da Trenbide kalean. **620740898**

▶ Garaje itxia alokatzen da Bernardo Ezenarro kalean. Trastero eta guzti. **605775315**

▶ Garajea alokatzen da Santa Ana 2an, Ametsa parean. Marraduna. **615787857**

▶ Lokala hartuko nuke alokairuan Elgoibarko erdialdean. **627784494**

## [ BESTELAKOAK ]

▶ Untxartak (huroiak) salgai. Merke. 100 euro. **658740788**

▶ Wenge koloreko mostradore eta ispilua salgai. Kutxa erregistratzailea ere bai. **Julene Poltsoak**

▶ Hezetasunaren kontrako aparatua hartuko genuke lokalerako. **620049420**

▶ Errepideko bizikleta salgai. Giant TRC Composite 1.0. 2006koa. 1.500 euro. Egoera oso onean. **618548711 (Iban)**

## ABISUAK

• San Migel auzoko elizan betaurreko batzuk aurkitu dira.

**943743109**

• Urrezko pulsera galdu da. Mar-  
kel eta 24-12-05 grabatua du.

**652 531133/652717712**

• Txakurkumeak oparitzen dira. Artzai txakur eta artzai alemaniar nahasketa. **635008496**

• "Rifen sarea"ren jabearekin kontaktuan jarri nahiko genuke. **676402851 (Manterola)**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarriak ordaindu egin behar dira. Iragarriak lau astetan agertuko dira.

Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 ¨ eta alokairua 8 ¨.

Autoak 8 ¨. Eta bestelakoak 5 ¨.

Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea lanerako prest. **943531270**
- Emakumea garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko prest. **699609190**
- Emakumea lanerako prest. **686617930/943530130**
- Neska lanerako prest. **630706181**
- Mutila lanerako prest. **680280791**
- Neska lanerako prest 10:00etatik 17:00etara. **665129877**
- Emakumea garbiketa lanetarako, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Orduka. **Jackeline 943530803/676623843**
- Neska lanerako prest. **686617930/943530130**
- Ingeles klaseak ematen ditut, maila guztiak. 18 urteik gorako entzat, one to one, proficiency. **606733850**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. **943 742201**

- Geriatriako Erizaintzako laguntzaile euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean. Esperientziaduna, informeak. **660511781/943742330 (Elena)**
- Neska eskaintzen da goizez etxe eta portalak garbitzeko. **943 742827**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean. **660511781 (Elena)**
- Emakumea orduka nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. **647100572**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. **943033809/696136780**
- Emakumea garbiketa lanetarako, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna. **646235195/636362251**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. **943530803**
- Mutil gaztea arratsalde eta asteburuetan lanerako prest. **627104915**

- Emakumea nagusiak edo gaitxoak zaintzeko prest. Egunez edo gauzez. Orduka ere. Esperientziaduna. **943172896 (Mertxe)**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. **639020180**
- Emakumea lanerako prest. **660800954**
- Mutila lanerako prest. Nagusiak zaindu, sukaldari laguntzaile, kamarero... **692703069 (Luis)**
- Ingelesko klase partikularrak ematen ditut. **943741091**
- Ingeles partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. **679113446**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest: elkarteak, tabernak, lokalak... **667 709 439**
- LH eta DBHko klase partikularrak ematen dira. **943 53 10 54**

### ESKAINITZA

- Kamareroa behar da. **943254366**

- Mekanikaria behar da muntaia lanetarako.. **699014349**
- Elgoibarko kafetegiri baterako neska behar da. Astelehen-ostiral, 12:30etik 15:30era. **943741416 (9:00-16:00)**
- Kamareroak behar dira asteburuetan martxa taberna batean lan egiteko. **678158015**
- Jubilatuentzako tabernan lan egiteko kamareroak behar dira. Jardunaldi erdia, adinak ez du axola. **678158015**
- Mendaroko kafetegirako sukaldaria behar da. **943030150**
- Asteburuetarako kamareroa behar da. **943030150**
- 1. edo 2. mailako ofizial soldatzailea eta muntatzailea behar da. **699537598**
- Plegatzailea behar da. Planoen ezagupenarekin. **699537598**
- Tituludun erizainak behar dira Elgoibarretarako. **609318192/943466150**
- Ume batentzat frantses irakaslea behar da. **647707081**

## [ ZORIONAK ]



▶ Zorionak **Ione!** Hilaren 5ean, 2 urte bete zenituelako. Familiakoen partez, muxu handi bat.



▶ Zorionak **Aida!** Urriaren 6an, 5 urte egin zenituelako. Izeko Petri, lehengusina eta Reneren partez.



▶ Zorionak **txapeldun!** Hilaren 13an, 8 urte bete zenituelako. Guraso, anaia osaba eta aitixhen partez.



▶ Zorionak **Oier Arriolari!** Urriaren 13an 6 urte egin zituelako. Patxo handi bat, Xabiren partez.



▶ Zorionak **Maria!** Urriaren 15 ean 6 urte bete zenituelako. Guraso eta ahizpa Sararen partez.



▶ Zorionak **Nerea!** Hilaren 15ean 11 urte egin zenituelako. Guraso eta ahizparen partez!



▶ Zorionak **Maitene!** Urriaren 16an 8 urte bete zenituelako. Familiakoen eta Maitalenen partez.



▶ Zorionak **Jon!** Urriaren 17an, 7 urte egin zenituelako. Familiaren partez, muxu handi bat!!



▶ Zorionak **Unai!** Hilaren 18an, 4 urte bete zenituelako. Patxo bat etxekoan eta Oier eta Leireren partez.



▶ Zorionak **Lucia!** Gaur 2 urte bete dituzulako. Maite zaitugu ama eta aitak.



▶ Zorionak **Paul!** 5 urte egin dituzulako. Muxu askorekin zoriontzen zaitugu, Jon eta etxekoek.



▶ Zorionak **Ainitze!** Bihar, 6 urte beteko dituzulako. Etxekoan partez, egun polita pasa!



▶ Zorionak **Nahia!** Gaur, 5 urte egin dituzulako. Familiakoen partez, muxu handi bat!!



▶ Zorionak **Ainara!** Hilaren 24 an, 2 urte egingo dituzulako. Familia osoaren partez, muxu bat!



▶ Zorionak **Aiatxo!** Gaur zure urtebetzea delako. Muxu bat zure familiareren partez.



▶ Zorionak **Leire!** Gaur, 8 urte egin dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Garazi!** Ondo pasa igandean; 10 muxu sendiaren partez!!




▶ Zorionak **Kristina!** Segi orain arte bezala jator-jator izaten!! Etxekoak.



▶ Zorionak **Ainara!** Zure 10. urtebetzean! Etxeko guztien partetik muxu handi bat!!



▶ Zorionak **potxola!** Bidatz, muxu potolo bat Ikastolako lagun guztien partetik!! Muaa!!



▶ Zorionak **Ander!** Ondo pasa zure urtebetzean. Muxu asko Ikastolako laguntxoan partez.



▶ Zorionak **Manolo, Angel eta Nora!** Zuen urtebetetzeak, urriaren 12, 14 eta 18an izan zirelako. Muxu bana, familia guztiaren partez.

▶ Zorionak **Aitaba!** Igandean urteak beteko dituzulako, Rubenen partez, muxu bat.



▶ Zorionak **Ander!** Ondo pasa zure urtebetzean. Etxekoak eta Ainhoa.



▶ Zorionak **bikote!** Ondo pasau zuen ezkontza egunean, etxeko guztien partez!!



▶ Zorionak **Nerea eta Hector!** Ondo pasau zuen egunean, kuadrilakoan partez.

## [ OKINDEGIA ]



22 igandea EIZAGIRRE



## [ FARMAZIAK ]

### GUARDIA 24 ORDUZ

- 20 Yudego
- 21 Zabaleta  
(\* Goizez Bidasolo)
- 22 Zabaleta
- 23 Etxeberria (Errosario)
- 24 Ibañez
- 25 Bidasolo
- 26 Etxeberria (Santa Ana)
- 27 Fernandez

\* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

### KANPOKO FARMAZIAK

**IBAÑEZ**  
Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**  
Herriko enparantza 4, Garagarza.  
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**  
Kalebarren, 9 Soraluze.  
Tel: 943 75 13 84



**MH** Makina Erremintaren Institutua  
Instituto de Máquina Herramienta

**30 min + 10 te gia**

**makina erreminta arloko enpresen erantzukizun soziala, euskara baliabideak eta praktika onak**

IMH (Elgoibar) | 2006ko urriak 26

**1. SARRERA EKITALDIA:**  
Elgoibarko Udala:  
Hizkuntza Politika Sailburuordetza  
AFM - Makina Erreminta Ekoizleen Elkarte

**2. METODOLOGIA, ESPERIENTZIAK ETA PRAKTIKA ONAK:**

- DANOBAT
- ETXEPE
- KONDIA
- INGRESS
- ELAY
- EUSKALAN
- AHIZE-AEK
- EMUN
- ELHUYAR

**3. ENPRESENTZAKO PRODUKTU ETA ZERBITZUAK:**

- FAGOR AUTOMATION
- ARTEZ
- CODESYNTAX
- PLAZAGUNEA
- IGARLE
- IMH
- ELEKA
- INDABA-KAM
- ARDATZA egitasmoa
- ELA
- LAB
- CCOO
- EUSKADIKO KUTXA

**4. AMAIERA EKITALDIA:**  
Sektoreko enpresei esker ona.  
Agurra eta txirbil harroketa eskuliburua banatu.  
Luntxa eta bitariko bilerak.

**INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA:** IMH, Leire Alberdi · Tel. 943 74 41 32 · goazen@imh.es · www.imh.es









## [ 20 BARIXAKUA ]

### 17:30 BETIZU: A ZER ZIRKOA IKUSKIZUNA

Plaza Handian  
Antolatzailea: Txankakua M. E.

### 19:00 KOMIKI LEHIAKETAREN SARI BANAKETA ETA ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Kultur Etxeko erakusketa gelan  
Antolatzailea: Kokoe K. E.  
Urriaren 27ra arte ikusgai

### 20:00 GIZA KATEA FERNANDO BERT EUSKAL PRESOAREN ALDE

Antolatzailea: Etxerat

### 22:00 BIDEO FORUM-A

Filmea: "Porque las mujeres siempre queremos mas"

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

Hizlaria: Eskame Larrinaga

Antolatzailea: Haizea E.T.

### 22:15 DEBAJAZZ

Debarroko Jazz Jaialdia

Taldea: "Los Reyes del K.O."

Herriko Antzokian

### 22:30 HITZALDI-EZTABAIDA

"La Senda aborigen" liburua aurkeztuko du Guillermo Pikero idazleak

Gaztetxean

## [ 21 ZAPATUA ]

### 11:00 MOZORRO FESTA

Plaza Handian  
Antolatzailea: Atxutxiamai  
Aisialdi taldea

### 13:30 FERNANDO BERT EUSKAL PRESOAREN INGURUKO PRENTSAURREKOA

Plaza Handian

## [ 25 EGUAZTENA ]

### 19:00 FERNANDO BERT EUSKAL PRESOAREN ALDEKO ENKARTELADA

Plaza Handian  
Antolatzailea: Etxerat

## [ 26 EGUENA ]

### 09:15 30+10 MINTEGIA

IMHn

### 17:30 JOSEBA RAMIREZ IPUIN KONTALARIA

Udal Liburutegian  
Antolatzailea: Kutxa

## [ 27 BARIXAKUA ]

### 19:30 ISIDRO LARRAÑAGA AKORDEOI ORKESTRA

Herriko Antzokian  
Antolatzailea: Kutxa  
Laguntzailea: I. Bereziartua Musika eta Dantza Eskola

### 20:00 ETXERAT-EN ENKARTELADA

Plaza Handian

## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

#### «La joven del agua»

21, zapatua: 19:30-22:15

22, domekia: 19:30-22:15

23, astelehena: 21:30

#### "Asterix y los Vikingos"

22, domekia: 16:30

«Desayuno en Pluton» (Z.K.)

26, eguena: 21:30

### EIBAR, UNZAGA

#### «La prueba del crimen»

20, barixakua: 19:30-22:15

21, zapatua: 17:00-19:30-22:15

22, domekia: 17:00-19:30-22:15

23, astelehena: 19:30-22:15

24, martitzena: 19:30-22:15

25, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, RIALTO

#### «Worl Trade Center»

20, barixakua: 19:30-22:15

21, zapatua: 17:00-19:30-22:15

22, domekia: 17:00-19:30-22:15

23, astelehena: 19:30-22:15

24, martitzena: 19:30-22:15

25, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



Clinica Oftalmológica  
**RECALDE**  
Oftalmologi Klinika

# www.clinicarecalde.com

## MIOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

# Atzera hegira



**1949**. urteko erretratu zahar hau **Sabin Beristainek** laga digu. Elgoibarren oso ezagunak diren "Bermeana" familiako bi ahizpa ageri dira erretratu honetan. Ezkerrekoa **Begoña Perez** ( ) da eta eskuinekoa **Pilar Perez**. Negozio munduko familia izan da hau, beti izan dute denda, arraindegi edo bestelako komertzioaren bat. Gaur egun ere, Pilarrek denda bat dauka San Frantzisko kalean. Bi ahizpa hauek gazte gaztetatik hasi ziren arraindegian lanean. Garai hartan, kalez-kale ibiltzen ziren arraina karretilan hartuta, herriko bizilagunei saltzen. Argazkian ikusten den bezala, pisu bat eramaten zuten beraiekin, arraina momentuan pisatu eta saltzeko. Esan digutenez, Edurnek abilezia handia zeukan negozioetarako, eta oso prezio onean lortzen zuen arraina. "Bermeanoak" oso ospetsuak izan dira gure herrian, eta gaur egun ere, izen handiko familia da.



## ESKERTZA

2006ko urriaren 17an hil zen  
**Juana Barrutia Manasidor**ren sendiak,  
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



www.residencialgeminis.com

# elgoibar

48 etxebitza, 2 eta 3 gelakoak  
117 garaje eta 76 trasteleku



259.000 €-tik  
garaje eta trasteleku barne  
(43.073.974 ptas.)

Tfno.: 943 74 80 92




Especies de Bienestar



Argibideak: INFOLUR Antonio Arrillaga, 1 behea. 20870 Elgoibar. info@infolurnet - www.infolurnet



Eguneroko ezusteeak  
ez dezaten atzerapenik  
ezta produktibotasun  
galerarik sortu



# infomatica bizituan

© Infolur S.L. 2018

Lurrotako automobil familiarretan

# 70 urtetako esperientzia

edukitzea ez da kasualitatea.

Chevrolet Captiva berria

Begirada guztien zentrua.

Europarentzat bereziki egina.

5 eta 7 eserlekurekin.

**Diesel 150 CV.**

Gasolina motorra

136 CV eta 230 CV.

**Captiva Gama**

23.330 €-tik hasita.



Diesel 150 CV 4x4 29730€-tik hasita

**3 URTEKO** BERMEA  
edo **100000 Km.**

## Chevrolet Captiva

**Giauto 902 345 225**

Otaola Etorbidea, 27 · EIBAR · Tel.: 943 70 08 41

Karobi Industrialdea z/g · OLABERRIA · Tel. 943 88 51 50

clientes@giauto.es

[www.chevrolet.es](http://www.chevrolet.es)

Chevrolet gehiago da.



**CHEVROLET**